

## oroimenaren bidea

1937ko apirilaren 26a zen, astelehena, Gernikan azoka eguna. Giro nahasia bazegoen ere jendea normaltasun baten barruan bizi zen. 5.000 biztanle inguru zituen herrian ia jende kopuru bikoitza zegoen (errefuxiatuak, gudariak, Bizkaiko hainbat lekutatik azokara etorritakoak...). Hegazkin alemanek eta italiarrek 30 tona bonba inguru bota zituzten gure herrian. 250 kg-ko bonba apurtzaileak eta 1,5 kg-ko bonba su-eragileak.

Orduan jendea ihesean hasi zen. Hainbatek babeslekuetara jo zuten. Beste askok errepideetatik Forua, Muxika, Ajangiz eta Lumo aldera ihes egin zuten. Txango honetan Lumoko bidea hautatu zuten haien oroimen bidea egingo dugu.

Asko izan ziren Lumora bidean lur erretenetan, zuhaitzen babesean zein errepidean bertan bizia galdu zutenak. Horien memoria "Egurtxiki" bildutako testigantzei esker berpiztu zen bonbardaketaren 80. urteurrenean. Gaurko txangoan testigantza haietako asko izango ditugu gogoan, oroitzen dena ez baita inoiz hiltzen.

## kosnoagako zelataria

Urtarrilaren 4an, Bilbo bonbardatu eta gero, hainbat gudari bidali zituzten gure mendietara, **zelatari lanak** egitera. Euren funtzioa inguruko herrietako biztanleei hegazkinen presentzia abisua ematea izaten zen, **babeslekuetan** sartu zitezten.

*"Gure neba izan zen abisua iragartzen zuten kanpaiak joz aritzen zena, Bere postua Andra Maria elizako kanpandorra zen. Bere lana Aixerrotako bandera gorria zaintzea zen"*

*"Goiz horretan elizako kanpaiak eten gabe joz aritu ziren, baina nik ez nien kasu gehiegirik egin. Beti errepikatuz aritzen ziren, bereziki eguraldi ona egiten zuenean (...) Une zehatz batean, kanpaiak entzutean, zerura begiratu genuen eta ikusi genituen Ajangiztik hurbil hegazkin batzuk, gainbehera bizian jaisten"*


*"Babesleku guztiek antzeko eraikuntza zuten. Pinu enborrek osatzen zuten oinarria eta sabaia. Enborren gainean bost milimetroko altzairuzko plantxak ezartzen ziren eta gainean hondarrezko zakuekin egindako bi kapa. Andra Mari kalekoa zen bukatu gabe zegoan bakarra"*

1937-04-26 gernika, egun hartan

## 1937-03-31 BIZKAIKO ERASO NAGUSIA

Egun hartan Mola jeneralak, altxamendu faxistako jeneralen artean iparraldeko erasoaz arduratu zenak, **Bizkaiaren kontrako eraso nagusia** abiatu zuen. Aurreko egunetan hegazkinetatik botatzen zituzten papertxoek eraso iragartzen zuten. Hala ere, inork ez zuen pentsatu populazio zibilaren kontrako eraso horren gogorra izango zenik. Fronteko lerroak gogor bonbardatzeaz gain, egun horretan Durango ere bonbardatu zuten. Aurrekaririk gabeko eraso honen ostean, bazegoen Gernika bonbardatuko zuten susmorik. Izan ere, Gernika Durango-Bermeo-Bilbo-Lekeitio errepideen bidegurutze garrantzitsua zen. Arrazoi honengatik Gernikan gudari asko zeuden astelehen hartan.

*"Ni Saseta batailoiko Zarragoitia konpainiako gudaria nintzen. Urkiola inguruan gogorik borrokatu genuen eta Gernikara bidali gintuzten lau eguneko deskantsua egitera. 23an heldu ginen eta Agustindarretan kokatu ginen"*



## GERNIKAN AZOKA EGUNA

*"Astelehen goiz hura ohikoa zen niretzat. Zarauzko errefuxiatua nintzen, nire herria Mola jeneralen tropek hartua zutelako. Beste bi neskaekin batera Bilbora joan nintzen hasieran, baina han zegoen janari gabeziak eraginda Gernikara mugitu ginen. Gerra hasi zenean, gero eta jende gehiago zetorren Gernikara; errazionatu gabe zeuden jakiak eros ahal zizkieten baserritarrei. Trenak eta autobusak jendez lepo heltzen ziren, Bizkaiko bazter guztietatik"*

*"Gernikako astelehenetan izugarri gozatzen genuen. Azoka egunak baino gehiago ziren. Plazako dantzaldia seiak edo zazpiak aldera hasten zen, pilota partidaren ondoren"*



## BONDARDAKETAREN BERRI PRENTSAN

GARAIKO PRENTSA

Frankistek ahalegin berezia egin zuten prentsan bere bertsioa zabaltzeko. Gezur horri eutsi zioten 70.hamarkadara arte. Hala ere euskal prentsan egia nagusi izan zen.




Euzkadi - 1937-04-28



Tierra Vasca - 1937-04-27



Eguna - 1937-04-28




Tierra Vasca - 1937-04-27

El Diario Vasco  
1937-04-29

Euzkadi roja - 1937-04-27






**ikurrak**

- Abiapuntua
- Helmuga
- Garraio publikoa
- Turismo bulegoa
- Aparkelekua
- Taberna
- Natura2000sarea
- Ikuspegi panoramiko
- Iturria
- Eliza
- Ermita
- Dorretxea

**FITXA TEKNIKOIA**



**lumora bidean**

“Azkenik, nire zulotik atera eta Juntetxera zuzendu nintzen Gernikako Arbola ea zutik zegoan jakin nahi nuen. Uzta bati lotutako idi pareak ikusi nuen, lasaitasun osoz jaten eta behar bada inoiz helduko ez ziren jabeen zain”

“Lumoko errepidean, ur biltegiaren alboan, hainbat gorpu topatu zituzten. Beranduago ikusi genuen nola jaisten zituzten. Aritzen etxearen aurrean jarri zituzten. Ez genituen ezagutzen. Sexua baino ezin genuen bereizi”

“Andra Mari elizatik gertu sekulako zuloa ikusi nuen. Lumoko errepiderantz joan nintzen korrika. Ur biltegi alboan etzanda babestu nahian zeuden batzuk eta beste batzuk platanondo baten azpian”

“Lumora joatea erabaki genuen orduan. Udetxea izeneko etxetik gertu zenbait gorpu ikusi genituen. Handik hurbil beste platanondo bat zegoen erorita eta inguruan gorpuzkin gehiago zeuden. Azkar pasatu eta aurrera jarraitu genuen. Azkenik Lumora heldu ginen. Handik goitik herriak nola hartzen zuen su ikusi ahal genuen”

“Bonbaketariak hirunakako taldeetan zihozten. Ibarretik agertzen ziren, V-ak eginez eta gure aurretik pasatzen ziren. Tirokatzen hasi gintzaizkien, baina ez zuen ezertarako balio. Aurrera jarraitu eta erdigunean deskargatzen zituzten bonbak”

“Gernikara jaisten, lurreratuta zegoen zuhaitzaren lekura heldu ginen. Alde guztietatik gorputz laurdenkatuak zeuden. Bonba handi batek lehertu zuen euren ondoan. Gazte bat bizirik aurkitu genuen, Zerbait esan nahian begiratzen ninduen. Osaba esan zidan. Nire loba zen eta ez nuen ezagutu. Egun hartan hil zen”.

Garaiko testigantzak

Gernika erabat suntsiturik geratu zen. 10 urte iraun zuten gure herriaren berreraikitze lanek.

Preso errepublikazaleak izan ziren, batez ere, lanekigiteraren beharretakoak.

